

## 4. Gaia Lan Merkatua



## **4 gaia. Lan merkatua**

**4.1. Sarrera**

**4.2. Generoa eta lan merkatua**

**4.3. Etorkinak eta lan merkatua**

**4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak**

Ekonomia-Jardueraren Zirkuituan merkatu hauek ditugu:

- .. PRODUKTU ETA ZERBITZUEN MERKATUA
- .. EKOIZPEN-FAKTOREEN MERKATUA

Ekoizpen-Faktoreen Merkatuaren barne, hiru merkatu hauek ditugu:

<b>EKOIZPEN FAKTOREAK</b>	<b>MERKATUAK</b>
<b>LANA</b>	<b>LAN MERKATUA</b>
<b>KAPITALA</b>	<b>KAPITAL MERKATUA</b>
<b>LURRA</b>	<b>HIGIEZINEN MERKATUA</b>



A. Zein punturaino eros eta sal daiteke  
gizakien lana merkatu batean?

B. Eskaintza, eskaria eta salneurrien  
“pizgarrien” mugak

C. Lan Faktorea ekoizle eta kontsumitzaile gisa

D. Lansariaren kontraesana: Enpresarentzat Gastua, Ekonomiarako Eskaria



eman ta zabal zazu

E. Soldatapekotze-prozesua eta soldatapekoen indar politikoa


F. Lansariak murriztu eta lanaren prekarizazioa etekin-tasa mantentzeko tresna gisa

G. Lana eta Kapitalaren arteko Dialektika.  
Enpresariak eta Sindikatuak

H. Sindikatuen zeregina lanariak eta lan  
baldintzak babestean

# 4.1. Definizioak

Grafikoa 1. Biztanleen sailkapena lan-merkatuan





## 4.1. Definizioak

- **Biztanle potentzialki aktiboak:** lan-merkatuan parte hartzeko aukera duten pertsonak, normalean 16 urte eta gehiagokoak (batzuetan, 16-65 urte artekoak).

Biztanle potentz. aktiboak = Aktiboak + Ez aktiboak

- **Biztanle aktiboak:** lanean dauden pertsonen eta langabezian baina lan bila aktiboki ari direnen batuketa da.

## 4.1.1 Definizioak

- **Biztanle ez aktiboak:** 16 urte edo gehiago dituztenak eta landunak edo langabetuak ez direnak osatzen dute (ikasleak, pentsionistak, etxeko-andreak etab.); baita **etsituak** ere.
- **Desanimatuak-etsituak:** langabe bezala kontuan hartu beharko lirateke “benetako” langabezia-tasa ezagutzeko (kontrakoa kontraturik gabe ari diren langileekin).



## 4.1.1 Definizioak

- **Landunak:** Enplegu ordaindu bat dutenak edo jarduera bat beregain daramaten eta lanean dauden pertsona guztiak dira (denbora osoan edo erdian; behin behinekoak ala behin betikoak..).
- **“Lana” kontzeptua:** ikuspuntu merkantilista, jardueraren truke diru-sarrerak lortzeko helburua duen lan mota (autonomoak eta soldatapekoak). Ez aktiboen artean lana egiten dutenak: etxeko lanak egiten dituztenak, ikasleak...
- **Langabeak:** soldatako enplegurik edo enplegu independenterik ez duten eta, une honetan, lanean hasteko enplegua **bilatzen** ari diren pertsonak dira



eman ta zabal zazu

## 4.1.1 Definizioak

- **Jarduera-tasa (%):** populazio aktiboa zati lanerako adinean dagoen biztanleria da.

$$\text{Jarduera - tasa} = \frac{\text{Biztanle aktiboak}}{\text{Biztanle potentz. aktiboak}} \times 100 = \frac{\text{Landunak} + \text{Langabeak}}{16 \text{ urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

- **Langabezia-tasa (%):** langabeturik dagoen biztanleria aktiboaren portzentajea da.


$$\text{Langabezia - tasa} = \frac{\text{Langabeak}}{\text{Biztanle aktiboak}} \times 100 = \frac{\text{Langabeak}}{\text{Landunak} + \text{Langabeak}} \times 100$$

- **Politika makroekonomikoaren funtsezko helburuetako bat langabezia-maila baxua mantentzea da.**



## 4.1.1 Definizioak: informazio-iturriak

16 urte edo gehiagoko biztanleen sailkapena BAIren arabera



*Iturria:* INE

16 urte baino gutxiagokoak ez-aktiboak kontsideratzen dira




## 4.1.1 Definizioak: informazio-iturriak

- INE: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Encuesta de Población Activa, EPA).
- Eustat: Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) sailkatzeko inkesta.
- SEPE/Lanbide: izena emandako langabetuak.
- Gizarte Segurantzza: langileen afiliazio-datuak.
- Nazioartekoak: Eurostat, OIT...




# Langabezi Tasa European 2017: Bielorrusiaren %1 eta Kosovoren %30 artean



# Enplegu eta Langabeziaren bilakaera

Langabezi tasa asko igo zen 2007tik 2012ra  
eta beheruntz jo zuen hortik aurrera

## Tasa de paro en País Vasco frente al conjunto de España




Fuente: INE / EPDATA



## Langabezi tasa asko igo zen 2007tik 2012ra eta beheruntz jo zuen hortik aurrera


EVOLUCIÓN DEL NÚMERO DE AFILIADOS A LA SS EN LA CAPV



Fuente: Confebask y M<sup>º</sup> de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social

Nota: dic 19\* y dic 20\* descontando el efecto de la incorporación de los cuidadores no profesionales


### En 2020 se superará el nivel de empleo pre-crisis



Fuente: CONFEBASK




# BPG eta Langabeziaren bilakaerak guztik loturik daude ...



Fuente: EUSTAT / Gobierno Vasco / J. BOLLAIN



# BPG eta Langabeziaren bilakaerak guztik loturik daude ...



Fuente: EUSTAT / Gobierno Vasco / J. BOLLAIN



## 4.1. Malgutasuna ala prekarizazioa?

- **Lan-malgutasuna:** lan-merkatuak aldaketetara egokitzeko duen gaitasuna
  - aldaketa teknologikoak
  - eskariak sortutako aldaketak...
- **Kanpo malgutasuna:** lantaldearen kopurua doitzeko ahalmena, baldintza ekonomikoak aldatzean, enpresaren egoera aldatzean. Funtsean, **langileak oztopo gutxirekin kontratatu edo kaleratu ahal izatea.**



eman ta zabal zazu

# LANALDI PARTZIALAZ (JARDUN ZATIZKO LANAZ)

- **Onuragarria da borondatezkoa denean**
- **“Beste aukerarik ez dagoenean” prekarietate arazoa bihurtzen da**
- **Aukera Estrategikoak:** Lanaldi partziala murrizteko neurriak hartu behar dira ala, alderantziz, pixkanaka gizarte osora zabaltzeko ahaleginak egin behar dira?



eman ta zabal zazu

## 4.1. Malgutasuna ala prekarizazioa?

### Kanpo malgutasuna

- Sarrerako malgutasuna: kontratu mota ezberdinak
- Irteerako malgutasuna: kontratua iraungitzeko aukerak; iraizpen-kostuak, iraizpen motak, prozedura administratiboen konplexutasuna, etab.
- Kanpo malgutasuna lortzeko beste bideak: Aldi Baterako Lan Enpresak (ETTak), subkontratazioak...

## 4.1. Malgutasuna ala prekarizazioa?

- **Barne malgutasuna:** kanpo doikuntzetara jo gabe, enpresaren barnean lana berrantolatu
- **Kopuruzko barne-malgutasuna:** ordutegi-aldaketak, mugikortasun geografikoa, funtzionala
- **Soldata-malgutasuna:** soldatak doitzeko gaitasuna; soldataren egiturarekin erlazionatuta, osagai finkoa eta aldakorra (hitzarmen kolektiboak)
- **Malgutasun kualitatiboa:** kooperazioa, trebakuntza berrikuntzara egokitzeko, etab.

## 4.1. Malgutasuna ala prekarizazioa?

- **Erreformen helburua: malgutasuna**
- **Lana lortzeko aukera gehiago sortu:** kontratu mota berriak; bereziki, zailtasun gehiago dituztenentzat (gazteak, emakumeak, ikasketa-maila baxuko pertsonak...)
- **Langileak kaleratzeko aukera gehiago sortu:** irazpenaren inguruko araudia, kostuak
- **Langabetuen dirulaguntza doitu:** laguntza eman, baina lana bilatzen jarraitzeko pizgarriak kendu gabe
- **Negoiazio kolektiboak arautu eta lan-merkatuan bitartekotzea gauzaten duten erakundeen araudia berrikusi.**




eman ta zabal zazu



## 4.1.3. Malgutasuna ala prekarizazioa?


**Prekarizazioaren adierazleak:** langabezia, behin-behinekotasuna, eta lanaldi partziala?




# Malgutasuna ala Prekarizazioa?

## EL MERCADO LABORAL VASCO


### ● EVOLUCIÓN DE LOS CONTRATOS INDEFINIDOS EN EUSKADI



### ● EVOLUCIÓN DE LA TASA DE TEMPORALIDAD EN EUSKADI



### ● TASAS DE TEMPORALIDAD DE LA UNIÓN EUROPEA EN 2018



FUENTE: SEPE, INE (Encuesta de Población Activa).

Dina Sánchez / EL MUNDO



# Beharrezkoa al da Langabezia?

- Garrantzirik duen langabeziarik gabeko sistemak:
  - Sistema sozialistak (Bielorrusia, Txina, ...)
  - Kooperatibagintza
- ERRONKA TEORIKOAK:
  - Beharrezkoa al da Langabeziaren bildurra lan egiteko pizgarri gisa?
  - Langabeziarik ez badago ... nola egingo diete aurre enpresek salmenten jaitsierei?
  - Langabezia enpresen jardueraren esternalitate (kanpo-eragin) gisa



eman ta zabal zazu

# Nola murriztu langabezia?

A. DAGOEN LANA BANATUZ

B. EKONOMIA JARDUERA SUSTATUZ

C. LAN MERKATUTIK GIZATALDE BATZUK ATERAZ

D. ESKAINTZA ETA ESKARIAREN ARTEKO  
HARREMANA DOITUZ

# Nola murriztu langabezia?

- A. DAGOEN LANA BANATUZ

- Makroekonomian: Lanaldia murriztuz

- Enpresa mailan:

- .. KurzArbeit (Alemania ...) (Lanaldia murriztea)

- .. Cooperativas

- .. Bielorrusia (Prácticamente sin desempleo)

## B. EKONOMIA JARDUERA SUSTATUZ

## C. LAN MERKATUTIK GIZATALDE BATZUK ATERAZ (Jubilazioak, lanarekiko interesa galduz...)

## D. ESKAINTZA ETA ESKARIAREN ARTEKO HARREMANA DOITUZ (Prestakuntza, bitartekaritza, ...)



eman ta zabal zazu

## 4.2. Generoa eta lan-merkatua

eman ta zabal zazu



## 4.2. Genero eta Lan Merkatua

### LANAREN BETIKO BANAKETA

.. Gizonak – Zuzenki “produktiboa” den lana – “lanbidea”

- Emakumeak: Etxeko Lana

### XIX. MENDEA

Gizarte Politiken eta Sindikatuen Helburuak: Emakume eta umeen lana murriztu / debekatu

### XX. MENDEA

Indar edo zailtasun fisikoa, gero eta garrantzi gutxiago ekoizpen zuzeneko lanpostuetan. Emakumea lan-merkatura modu masiboan sartzea bideragarria bihurtzen da.

### EMAKUMEA MODU MASIBOAN LAN-MERKATURA SARTZEA

Sobiet Batasuna: Bigarren Mundu Gerraren ostean

Mendebaldea: 70etatik aurrera



## 4.2. Genero eta lan merkatua

### EMAKUMEAREN SARRERA LAN MERKATURA:

- Ez da gauzatzen “aurretik zegoen lanaren banaketa” moduan
- Benetako helburua ez zen emakumearen emantzipazioa, laneku merke gehiago eskuratzea baizik (enpresen etengabeko helburua).
- Familia bakoitzaren lanaldiari 40/45 ordu gehitzen zaizkio.





## 4.2. Genero eta lan merkatua

### EMAKUMEAREN SARRERA LAN MERKATURA:

- Emakumeak, lanaldi osoa + etxeko lanen ardura hartzera behartuta (ezinezkoa zena).
- Ehundaka milioi emakumeen gain-esplotazioa, asteko 80 / 90 / 100 orduko lanaldietan.
- Jaiotza-tasaren gainbehera
- Emakumearen laneratze geldoa eta zaila. Etxeko lanaren etengabeko “zama” izkutua.



eman ta zabal zazu

## 4.2. Genero eta lan merkatua

### EMAKUMEAREN SARRERA LAN MERKATURA:

- “Familiaren bigarren lanbidea” izan da.
- Zaila da lanbidea eta etxeko lana bateratzea (jaiotzasaren gainbehera)
- Aldarrikapenerako gaitasun gutxiago, sindikalizazio-maila txikiagoa.

## 4.2. Genero eta lan merkatua

Emakumeek eta gizonek lanbidean duten jokabideak ez dira oraindik berdinak.

Emakumeak, orain gutxirarte:

- Jarduera tasa txikiagoa
- Langabezi tasa handiagoa
- Behin-behinekotasun handiagoa
- Lansari txikiagoak

# ETXEKO LANAK. ASTEKO ORDU KOPURUAK

## LANGILEEN FAMILIA STANDARD.

### GUTXI GORABEHERAKO KALKULUA

#### C.A. EUSKADI

		Etixerako lanak	Adingabeko semealaben zaintza	Menpeko pertsonen zaintza	GUZTIRA ORDUAK / EGUNEKO	GUZTIRA ORDUAK / EGUNEKO
<b>70. URTE AK</b>	GUZTIRA	7,8	6,2	3,3	17,3	121,1
	Gizonak	0,8	0,5	0,2	1,5	10,5
	Emakumeak	5,1	4,1	2,5	11,7	81,9
	Beste senide batzuk	1,9	1,6	0,6	4,1	28,7
<b>2016</b>	GUZTIRA	3,2	8	3,8	15	105
	Gizonak	1,2	3,3	1,1	5,6	39,2
	Emakumeak	2,0	4,7	2,7	9,4	65,8

Iturria: EUSTAT / EKAI Center

(2016ko datuetan bereziki, "adingabeko semealeben zaintzarako" zehazgabeko ordu kopuru bat egon badago. Aldi berean "aisialdirako aukera" gisa har daiteke neurri batean beharbada.

Orohar, zenbaki hauek gutxi gorabeherakotzat hartzea komeni da.



## LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA ETXEKO LANAK. EGUNEKO ORDUAK

EUSKADIKO A.E. 2016

	Etixerako lanak	Adingabe ko semealaben zaintza	Menpeko pertsonen zaintza	GUZTIRA / EGUNEKO	GUZTIRA / ASTEKO
<b>GUZTIRA</b>	1,6	4,0	1,9	7,5 ordu / eguneko	52,5 ordu / asteko
<b>Gizonak</b>	1,2	3,3	1,1	5,6 ordu / eguneko	39,2 ordu / asteko
<b>Emakumeak</b>	2,0	4,7	2,7	9,4 ordu / eguneko	65,8 ordu / asteko

Iturria: EUSTAT / EKAI Center



**Familia-unitate bakoitzeko 40 ordu gehiago lan egitearen ondorioak, hasiera batean, emakumezkoen gain geratu zen batez ere. Baina gero eta gehiago, gizonen gain ere.**

**Lanean POBLACIÓN OCUPADA POR HORAS DIARIAS DEDICADAS  
A ACTIVIDADES DEL TRABAJO DOMÉSTICO**

**C.A. DE EUSKADI 2016**

	Tareas del hogar	Cuidado de hijos/as menores	Cuidado de personas dependientes	TOTAL
<b>TOTAL</b>	1,6	4,0	1,9	7,5 horas/día
<b>Hombres</b>	1,2	3,3	1,1	5,6 horas/día
<b>Mujeres</b>	2,0	4,7	2,7	9,4 horas/día



# GIZONENTZAT ERE, NAHIZ ETA GUTXIAGO, LANAREN ZAMA MODU NABARIAN HANDIAGOTU DA.


## ORDAINDUTAKO ETA ETXEKO LANEN ASTEKO ORDUAK LANEAN DAUDEN GIZONAK EUSKADIKO A.E.

	ORDAINDUTAKO LANA	ETXEKO LANA	GUZTIRA
70. Urteak	44	10,5	54,5 Ordu
2016	40	39,2	79,2 Ordu




Iturria: EUSTAT / EKAI Center

# EMAKUMEEN JARDUERA TASA ETA JAIOTZA TASA. ESPAINIA




Fuente: EUROSTAT / S. Gómez / C. Martí





# JARDUERA TASA. Urtarrilak 1ean 16 urte edo gehiagoko biztanleak (2015etik aurrera etorkizunerako hipotesiak dira)



Iturria: INE




## 4.2. Genero eta lan merkatua

Tasa de paro masculina y femenina en la C.A. de Euskadi por sexo (%)

10

Euskal AEko gizon eta emakumeen langabezia tasa, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eustat, BJA.


Fuente: Eustat, PRA.

- Euskadiko Aen ia desagertu da gizonak eta emakumeen arteko aldea langabezia tasan.



## 4.2. Generoa eta lan merkatua

**Ekonomia feministaren** ekarpen garrantzitsua: etxeko lanen eta zaintza-lanen garrantzia azpimarratu, ekonomiak historian zehar baztertutakoak.



## 4.2. Generoa eta lan merkatua

- **Familien estrategiak kontziliatzeko**
  - Jardunaldi partziala: “soldata bateko edo biko” eredutik “soldata eta erdiko” eredura
  - Emakumeen lanaldi bikoitzak/hirukoitzak
  - Zabaldutako familia (amonak/aitonak...)



## 4.2. Generoa eta lan merkatua

- **Kontziliatzeko neurri publikoak:**
  - Lan baimenak
    - Amatasuna, aitatasuna, edoskitzea (lactancia), ordutegi-malgutasuna, jardunaldi partzialak...
  - Mendeko pertsonak zaintzeko zerbitzu publikoak
  - Familiei transferentzia ekonomikoak, baina...
    - Merkatuko lan batek ematen dituen eskubideen aldean garrantzi gutxi



eman ta zabal zazu

# Kontziliazioa: ERRONKA HISTORIKOA EUROAPAN

- BENETAKO ZALANTZA:
- Zein punturaino da posible, kontziliaziorako laguntza edo neurri zehatzen bitartez, azken hamarkadetan gehitutako asteko 40 lan ordu horien arazoa konpontzea?
- Hauxe da, ziur asko, kontziliazio, emakumeen emantzipazio eta jaiotza-tasen politiken erronkarik zailena.

# Lan Merkatua eta Genero-Arrakala

- Oso kontzeptu nahastua. Kontua ez da “lanpostu zehatz” baterako lansaria ezberdina izatea emakume eta gizonentzat. Oso gutxitan gertatzen da hori.
- Funtsezko erronka: “FEMINIZATUTAKO SEKTOREAK”:
  - .. Sektore hauen lansariak baxuegiak dira, proportziotik kanpo. Arrazoia: betidanik emakumeen eskuetan egon den sektoreak izan dira. Beraz, lansariak babesteko eta sustatzeko indar gutxiago, aldarrikatzeko grina gutxiago, sindikalizazio maila txikiagoa. (Etxeko bigarren soldata zen eta...): Pertsonen zaintza, garbitzaileak, ...





































# EMAKUMEA ZUZENDARITZA-POSTUETAN

- Lehenengo mailan, modu nabarian, Errusia (%45 – gutxi gorabeherako berdintasuna)
- Sobiet Batasuneko kide izan ziren herrialdeak: (%35 - %40)
- Asia Ekialdea (Japoi salbu), %30etik gora (Txina: %30)
- Mendebaldea, Erresuma Batuko %21 eta Italiako %29 artean. (Espainia, %26), Irlanda salbu (%19), Holanda (%18) eta Alemania (%15).



# Percentage of business leadership roles held by women

Arrows indicate change from long-run average

1.		Russia	45%	↑	13.		France	28%	↑	22.		US	23%	↑
2.		Lithuania	39%	↑	14.		Greece	27%	↑	26.		UK	21%	↑
2.		Philippines	39%	↓	14.		Sweden	27%	↑	27.		Turkey	20%	↓
4.		Estonia	37%	→	16.		Armenia	26%	↓	28.		Brazil	19%	↓
4.		Thailand	37%	→	16.		Canada	26%	↓	28.		Ireland	19%	↓
6.		Indonesia	36%	↑	16.		Malaysia	26%	↓	28.		New Zealand	19%	↓
7.		Latvia	35%	↓	16.		Singapore	26%	↑	31.		Argentina	18%	↓
8.		Poland	34%	→	16.		Spain	26%	↑	31.		Mexico	18%	↓
9.		China	30%	↓	21.		Finland	25%	↓	31.		Netherlands	18%	↑
10.		Georgia	29%	↓	22.		Australia	23%	→	34.		India	16%	↑
10.		Italy	29%	↑	22.		Botswana	23%	↓	35.		Germany	15%	↓
10.		Nigeria	29%	↑	22.		South Africa	23%	↓	36.		Japan	7%	→

This is a ranking of 36 countries included in the Grant Thornton 2015 IBR survey

Source: Grant Thornton IBR Women in Business Report 2016; based on data drawn from Q3 & Q4 2015

eman ta zabal zazu



# EMAKUMEA ZUZENDARITZA POSTUETAN

- Faktore kultural eta soziologikoak (Ekialdeko Asia)
- Benetan gauzatutako politiken garrantzia (Errusia eta inguruko herrialdeak)
- Mendebaldeko emakumeen emantzipazioarako mugimenduen eragin hutsala (Mendebaldeko Europa eta Estatu Batuak)
- Emakumearen emantzipazioari buruz gehien hitz egiten duten herrialdeak, eragin gutxienekoak dira errealitatean.
- Bereziki deigarria da teorian mugimendu feministen bultzatzaileak izan diren herrialdeen kasua: Erresuma Batua (%21) eta Estatu Batuak (%23)



eman ta zabal zazu

# LANALDIA: BIDERATU GABEKO FUNTSEZKO ERRONKA

- Benetan posible da Mendebaldean emakumearen lan-emantzipazioa lanaldia ez bada murrizten modu nabarian?

(Azken belaunaldietan familia-unitatearen lan-zamari gehitu zaizkion 40/45 ordu horien zati garrantzitsu bat behintzat berreskuratuz)

- Horrela bada, zergatik ez da horretaz hitz egiten?

## 4.2. Generoa eta lan merkatua

Emakume eta gizonezkoek jokabide ezberdinak dituzte lan merkatuan.

Tradizionalki emakumeek...

- Jarduera tasa apalagoa dute
- Langabezia-tasa altuagoa
- Behin-behinekotasun altuagoa
- Soldata baxuagoak jasotzen dituzte

## 4.3. Etorkinak eta lan-merkatua



eman ta zabal zazu


# Ez da elkartasunaren ondorioa, enpresak etengabe lanesku merkearen bila joatearen ondorioa baizik

- Lan-immigrazioaren gertaeraren helburua ez da elkartasuna. Tamalez, lanesku merkea eskuratzea baizik ez du helburutzat.
- Ziur asko, emakumearen merkaturatze masiboaren antzeko testuinguru baten ondorioa da:
  - .. 1. EPEALDIA (Herrialde batzutan) 70. urteetatik aurrera/ Emakumearen laneratzearekin batera
  - .. 2. EPEALDIA 90. urteetatik / Behin emakumeen laneratzea agortuta lanesku merkearen iturri gisa.




eman ta zabal zazu

# JATORRIA. ERRENTAGARRITASUNAREN JAITSIERA ETA EMAKUMEAREN LANERATZEAREN AGORPENA LANESKU MERKEAREN ITURRI GISA IRABAZI TASAREN BILAKAERA G7



# EMAKUMEEN LANERATZEA LANESKU MERKEAREN ITURRI GISA EGONKORTZEN HASI ZAN 90ETAN






# ATZERRIKO BIZTANLERIAREN DATU BATZUK EUSKADIKO A.E. 2019

Gráfico 1.

Población de origen extranjero de la CAE por territorios históricos, evolución último año (absolutos)



Fuente: Elaboración propia a partir de los datos de Padrón Continuo, INE 2019

Tabla 1.

Población de origen extranjero de la CAE por territorios históricos, evolución último año (absolutos y %)

TT. HH.	2018	2019	Dif <sup>#</sup> 18-19	2018	2019	Dif <sup>#</sup> 18-19
	(N)	(N)	(N)	(%)	(%)	(%)
Álava	37.381	39.790	2.409	11,4	12,0	0,6
Bizkaia	100.640	108.307	7.667	8,8	9,4	0,6
Gipuzkoa	68.509	73.321	4.812	9,5	10,1	0,6
CAE	206.530	221.418	14.888	9,4	10,0	0,6

Fuente: Elaboración propia a partir de los datos de Padrón Continuo, INE 2019


Tabla 2.

Población total, autóctona y de origen extranjero de la CAE, por territorios históricos, 2019


TT. HH.	Población total	Población autóctona	Población origen extranjero				Distribución población por territorios históricos (%)		
			Total	Mujeres	Hombres	% mujeres	P. Total	P. autóctona	P. nacida en el extranjero
Álava	331.353	291.563	39.790	20.223	19.567	50,8	15,0	14,7	18,0
Bizkaia	1.152.200	1.043.893	108.307	57.753	50.554	53,3	52,2	52,6	48,9
Gipuzkoa	723.412	650.091	73.321	38.476	34.845	52,5	32,8	32,7	33,1
CAE	2.206.965	1.985.547	221.418	116.452	104.966	52,6	100,0	100,0	100,0

Fuente: Elaboración propia a partir de los datos de Padrón Continuo, INE 2019

# Euskadiko A.E. Lanean Dagoen Atzerriko Biztanleria Jarduera Sektoreen Arabera. 2019. EUSTAT



# OKUPATUAK, LANGABETUAK ETA AKTIBOAK NAZIONALITATEAREN ARABERA



## Trabajadores extranjeros que cotizan a la Seguridad Social

### Evolución de la afiliación media del colectivo

Mes de julio de cada año



### Por principales sectores de actividad

Sector de actividad	En número	% de var. interanual
Hostelería	365.526	7,29
Comercio; reparación vehículos motor	223.618	7,21
Sistema espec. agrario	206.593	1,44
Sistema espec. hogar	170.373	-4,39
Activ. administrativas y servicios auxiliares	168.347	11,84
Construcción	138.199	13,52
Ind. manufacturera	131.318	14,68
Transporte y almacenamiento	80.921	14,83
Actividades sanitarias y servicios centrales	69.594	16,90
Información y comunicaciones	41.369	20,70
<b>TOTAL</b>	<b>1.822.126</b>	<b>7,77</b>

## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak

eman ta zabal zazu



## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak

- **Enplegu politikak**, lan merkatuaren funtzionamendu ona eta biztanleriaren lan baldintza egokiak ahalbidetzeko hartutako ekimen publikoek osatzen dute. Hiru eratakoak izan daitezke:
  - *erregulazio politikak,*
  - *politika pasiboak eta*
  - *politika aktiboak.*



## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak

- **Erregulazio politikek** lan merkatuaren funtzionamendu egokia ahalbidetzen duten araudia garatzen dute.
- Besteak beste: kontratazio-erak, kaleratzeak, negoziazio kolektiboa, Gizarte Segurantzako kotizazioak...



## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak

- Enplegu ***politika pasiboek*** langabeziaren ondorio latzak apaltzeko helburua dute, diru-sarrerak eskainiz.
- Adin handikoen enplegu galera kasutan, **aurre-jubilazioak** eskainiz
- **Langabetuei errentak** (SEPESek kudeatuak) **2 eratakoak dira:**
  - **desenplegu prestazioak (kontributiboak) eta**
  - **desenplegu subsidioak (ohikoak + ez-ohikoa).**



eman ta zabal zazu




# Zer da IPREM?

**Indicador Público de Renta de Efectos Múltiples (IPREM)** Espainian erabiltzen den indizea da, pertsonen aldeko laguntzak edo subsidioak emateko orduan. 2004ean sortu zen, Gutxieneko Lansari Interprofesionala (SMI) delakoa ordezkatzeko diru-laguntza hauetan.

SMI lanbideen esparruan geratu zen eta IPREM pertsonen aldeko laguntzen esparruan.



# IPREM-AREN BILAKAERA



## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak

- **Desenplegu prestazioak:** kontribuzio-izaera dute, Gizarte Segurantzari urtebetez edo gehiagoz kotizatu dietenei ematen zaie.
- **Iraupena:** 4 hilabete eta 2 urte bitartean..

*“Oinarri Arautzailearen %70 lehenengo 180 egunetan. Oinarri Arautzailearen % 50 gainerakoetan.”*

	Semealabik ez		Semealabekin	
Gutxienez	%93 IPREM	502 €	%125 IPREM	671 €
Gehienez	%204 IPREM	1098 €	%262 IPREM	1.412€

Iturria: SEPES  
IPREM: Indicador Público de Renta de Efectos Múltiples  
Hilabeteko IPREM: 537,84 EUR.



# Langabezia-Prestazioak. Kontribuzio Mailakoak

Azken 6 urteetan kotizatutako lan-egunak	Prestazioaren iraupena
360 - 539	120 egun
540 - 719	180 egun
720 - 899	240 egun
900 - 1.079	300 egun
1.080 - 1.259	360 egun
1.260 - 1.439	420 egun
1.440 - 1.619	480 egun
1.620 - 1.799	540 egun
1.800 - 1.979	600 egun
1.980 - 2.159	660 egun
2.160 tik aurrera	720 egun

eman ta zabal zazu



# Kontribuzio Mailako Langabezia Prestazioak

## Zenbatekoa

Langile bakoitzaren Oinarri Arautzailearen arabera.

Oinarri Arautzailea: Azken 180 eguneko Lan Istripu eta Lanbide Gaixotasunen Oinarrien batz bestekoa, ordu extrak kenduta.



eman ta zabal zazu

# Kontribuzio-Mailako Langabezia-Prestazioak

## •Jaso behar dan diru kopurua:

- Hasierako 180 egunetan: Oinarri Arautzailearen %70
- 181. egunetik Aurrera, Oinarri Arautzailearen %50.
- Hala ere, indarrean dauden gehieneko eta gutxieneko mugak hartu behar dira kontuan.

## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak

- **Desenplegu subsidioak:** izaera asistentziala dute (ez-kontribuzio izaera), eta kontribuzio-izaerakoak baino laguntza apalagoak, zeinentzat:
  - **Kontribuzio-laguntzak xahutu duten pertsonentzat**
  - Denbora nahikoz kotizatu ez duten langileentzat
  - Genero indarkeriaren biktimak
  - Diru-sarrerarik gabeko pertsonak

**Iraupena:** 6 hilabete —interesdunak aurretik eskatuta— , iraupen berbereko beste bi epez luza daitezkeenak gehienez 18 hilabete arte (zenbaitetan 24 hilabete arte)

**Kopurua:** IPREM-aren %80



# DESENPLEGUAREN EZ-OHIKO SUBSIDIOA

## DESENPLEGUAREN SUBSIDIOA AGORTU DUTEN EPE LUZEKO LANGABETUENTZAT:

- Gehienezko luzapena: 180 egun.
- Kopurua 2019: IPREMaren %80



eman ta zabal zazu



## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak


- **Enplegu politika aktiboak** langabezia murrizteko xedea duten horiek dira.
- Langabetuen **lan-txertaketarako gaitasuna hobetzea, lan-formakuntzako** programen bitartez, kolektibo desfaboratuenak kontuan hartuz (gazteak, emakumeak, iraupen luzeko langabetuak, ezgaituak, etab.)

## 4.4. Enplegu politikak: pasiboak eta aktiboak


- Politika aktiboen helburua: **enplegu sorrera bultzatzea**
  - Kontratazioa erraztuko duten kontratazio era berriak ezarriz
  - Subentzio eta dedukzio fiskalak eskaintzea lan-kostuak apaltzeko
  - Enplegu publikoa sortzea
  - Autoenplegua eta kooperatibak bultzatzea
  - Enpresa-izipiritua indartzea



# Enplegu Politika Aktiboak Gastu Publikoan




# GUTXIENENKO LANSARIAREN BILAKAERA



# GUTXIENEKO LANSARIA EUROAPAN

## El salario mínimo en Europa

Salario mínimo en países de la UE en 2020  
(calculado para doce pagas anuales)



Países seleccionados. Primer semestre de 2020.

\* Equivale a 950€ en catorce pagas anuales.

Fuentes: Eurostat, medios de comunicación





eman ta zabal zazu

